



40.1

## JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

**ZIURTATZEN DUT:** Barrundiako Udaleko Alkateordeak 2019ko abenduaren 10ean, 549 Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

**IKUSIRIK:** 2019ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei musika ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: adinez txikiak izatea eta ondoren zehaztuko diren ikasketak garatzea: 1. mailako irakasgaiak, musika – hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu – taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein “Udal Musika Eskolatan”.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2018-2019 dagokionari da.

Oinarri horiek 2019ko urriaren 09ko (117. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

**KONTUAN HARTUZ:** 2019ko Aurrekontu Orokorretako 320.480.001 partidaren 3.500,00 €tako zenbatekoa zehazten zen.

**GERTUA IZANIK:** Behin eskariak jasota 3.500,00 €tako zenbatekoa hainbanatu zen 9ren artean.

**GERTUA IZANIK:** Eskariak guztira 10 izan ziren, honenbestez, eskari bati ez zitzaion erantzun, eta, ondorioz, zuzkidura nahikorik ez zegoen.

**GERTUA IZANIK:** Alkate-Udalburuak, 2019ko abenduaren 10eko 548. erabakiaren bidez, 320.480.001 partidaren zenbatekoa handitu zuen.

**GERTUA IZANIK:** Musika ikasteko beka emateko oinarriak arautzen dituenaren 4.1 klausularen arabera, diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa hartarako aurrekontuaren gordailua baino handiagoa bada, laguntza bakoitzaren gehieneko zenbatekoa murriztu egingo da, aurrekontu-gordailuak estali ahal izateko moduko portzentajea.

**IKUSIRIK:** Udaleko Kultura Teknikariak 2019ko abenduaren 05ean luzatutako txostena.

**KONTUAN HARTUZ:** Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 320:480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

## ZERA ERABAKITZEN DUT

**LEHENENGOA.-** 2019ko ekitaldiko musika beken behin-betiko zenbatekoak honako hauek izango dira:



| IKASLEA                             | BEHIN-BETIKO DIRULAGUNTZA | ORDAINDUTAKOA | ORDAINTZEKE |
|-------------------------------------|---------------------------|---------------|-------------|
| Iraitz Fernandez de Larrea Irazusta | 323,79 €                  | 286,20 €      | 37,59 €     |
| Eihara Fernandez de Larrea Irazusta | 278,99 €                  | 246,60 €      | 32,39 €     |
| Nañap Taish Lopez de Vicuña         | 278,99 €                  | 246,60 €      | 32,39 €     |
| Uxue Gonzalez de Matauco Medina     | 557,98 €                  | 493,20 €      | 64,78 €     |
| Ane Gonzalez de Matauco Medina      | 557,98 €                  | 493,20 €      | 64,78 €     |
| Irati Gonzalez de Matauco Medina    | 557,98 €                  | 493,20 €      | 64,78 €     |
| Iker Salgado Herrera                | 557,98 €                  | 493,20 €      | 64,78 €     |
| Urko Salgado Herrera                | 562,46 €                  | 497,16 €      | 65,30€      |
| Alaitz Salgado Herrera              | 283,47 €                  | 250,56 €      | 32,91 €     |
| Ane Beltran de Heredia Gorospe      | 259,63 €                  | 0,00 €        | 259,63 €    |

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

BIGARRENA.- Ordaintzeke dauden zenbatekoak berehala ordaintzea 320.480.001 partidaren pentzutan.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunei eta udaleko Kultura Teknikariari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2019ko abenduaren 10ean.

O.E.  
ALKATEORDEAK

